

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko martxoaren 04tik 10erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/03/08

- **LANEKO ETA GIZARTE-EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2023ko otsailaren 27ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita etxera saltzeko produktu kozinatuen egileen hitzarmen kolektiboa aldatzeko akordioa. **6176 xedapena- 3 or.**

2023/03/09

- **LANEKO ETA GIZARTE-EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2023ko otsailaren 27ko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, kortxo-industriaren estatuko VIII. hitzarmen kolektiboko 2022. urteko lansarien behin betiko taulei buruzko akordio partziala erregistratu eta argitaratzen duena. **6262 xedapena- 2 or.**

2023/03/10

- **LANEKO ETA GIZARTE-EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2023ko urtarrilaren 20ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita unibertsitate pribatuen, unibertsitate-zentro pribatuen eta graduondoko trebakuntza-zentroen VIII. hitzarmen kolektibo nazionala aldatzeko akordioa. **6343 xedapena- 6 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE-EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2023ko urtarrilaren 20ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, Ostalaritzaren sektoreko VI. Lan Hitzarmena –ALEH VI– erregistratu eta argitaratzen duena. **6344 xedapena- 66 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE-EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2023ko otsailaren 27ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zerbitzuguneen estatuko hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **6345 xedapena- 40 or.**

- **LANEKO ETA GIZARTE-EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2023ko otsailaren 27ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita ingeniarietako enpresen eta azterketa tekniko, ikuskapen, gainbegiratze eta kalitate-kontrolleko eta kontrol teknikoko bulegoen XX. hitzarmen kolektibo nazionala. 6346 xedapena- 41 or.
- **LANEKO ETA GIZARTE-EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2023ko otsailaren 27ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, aseguruen, berraseguruen eta Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten mutuen hitzarmen kolektiboaren 2022ko eta 2023ko soldata-berrikuspena eta soldata-taulak erregistratu eta argitaratzen dituen. 6347 xedapena- 7 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2023/03/08

- **EUSKADIKO ADMINISTRAZIOAK. EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako ehungintzaren sektoreko hitzarmen kolektiboaren akordio partziala. 655e xedapena- 2 or.

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/03/04

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Tributuak.** Honen akats-zuzenketa: 38/2022 Legea, abenduaren 27koa, zeinaren bidez aldi baterako kargak ezartzen baitira energiarako, kreditu-erakundeentzat eta kredituko finantza-establezimenduentzat, eta dirutza handien elkartasunerako aldi baterako zerga sortzen baita eta zenbait zerga-arau aldatzen. 5695 xedapena- 1 or.
- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** Honen akats-zuzenketa: HFP/1259/2022 Agindua, abenduaren 14koa, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren kudeaketan aplikatu beharreko batez besteko salmenta-prezioak onesten dituen. 5696 xedapena- 5 or.

- **PRESIDENTETZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Segurtasun nazionala.** PCM/207/2023 Agindua, martxoaren 2koa, Segurtasun Nazionalerako Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena; erabaki horren bidez, suntsipen masiboko armak ugaritzearen aurkako estrategia nazionala lantzeko prozedura onesten da. **5702 xedapena- 3 or.**

2023/03/06

- **BARNE MINISTERIOA. Hauteskunde-mahaiak. Dietak.** INT/212/2023 Agindua, martxoaren 1ekoa, hauteskunde-mahaietako kideen dieta arautzekoa. **5750 xedapena- 2 or.**

2023/03/08

- **PRESIDENTETZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Animalien babesa.** 159/2023 Errege Dekretua, martxoaren 7koa, Espainian animalien ongizatearen arloko kontrol ofizialei buruzko Europar Batasunaren araudia aplikatzeko xedapenak ezarri eta zenbait errege-dekretu aldatzen dituen. **6083 xedapena- 24 or.**

2023/03/09

- **INKLUSIOKO, GIZARTE-SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Sariak.** ISM/230/2023 Agindua, martxoaren 6koa, inklusioaren eta migrazioen arloko merezimendu-aitorpenen sistema arautzen duena. **6188 xedapena- 5 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2023/03/07

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA.** 24/2023 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan txerri-azienda estentsiboko ustiategiak antolatzeari buruzkoa, eta otsailaren 26ko 26/2019 Dekretua eta otsailaren 15eko 30/2005 Dekretua indargabetzen dituen. **1207E xedapena- 6 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2023/03/08

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** 1/2023 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, otsailaren 28koa, balio erantsiaren gaineko zergen, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergen, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergen eta ekonomia-jardueren gaineko zergako tarifetan tributu-neurriak aplikatzeari buruzkoa. **I-273 xedapena- 20 or.**

2023/03/10

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 22/2023 FORU DEKRETUA, martxoaren 7koa. Honen bidez, aldatu egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia. **I-280 xedapena- 10 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO